

KRITIKA MUSIKA

Joseba Martin

Motxila
darabilen
parlamentari
bakarra

Jose Antonio Labordeta

Lekua: Bilboko Euskalduna jauregia. Eguna: Urriak 18.

Elementu gutxi ekarri zuen Zaragozako kantariak bisita honetan: kantu apalak, gitarra akustiko bat eta Aragoiko umorea. Hala eta guztiz ere nahiko izan zen: entzuleak zutik eta txalo berotan jarri zituen bisetan *Canto a la libertad* berreskuratu zuenean. Antzinako irakasleak eta oraingo parlamentariak ironia agortezinaz baliatu zen kantuen aurkezpenetan Fraga, Aznar, Brassens, Bush, Ben Laden, Garzon, Buñuel edo Cesar Vallejo aipatzeko. Horrela, kantuek irakurketa berritua hartzen zuten.

Abiada bizian ibili zen kantaria eta lehenengo ordua bete zenerako hamazazpi kantu geneuzkan entzunak. Pieza berri batez –*Cada día que pasa* umoretsua– hasi zen eta berehala piezak ezagunak (*Canción de amor*, *Parabola del milagro de Lamberto*, *Arremojate la tripa*, *Banderas rotas...*) eta hain ondo ezagutzen ez ditugun besteak (*Ya ves*, *Ramon Cabeza*, *Trilce*, *Mar de amor*, *Si tus labios supieran...*) entzuteko aukera izan genuen. Labordetak entzuleen arreta mantendu zuen une bakoitzean eta istorio eta aipamenen artean txalo beroak lortu zituen... kantuak hasi baino lehen.

Lagun maitagarria

Balore handiak daude Labor-detaren hitzetan: elkartasuna, emigrazioaren beharra eta pena, herrimina, lurraldea, askatasuna, amodioa, etsipena... eta horregatik beharbada jendearen bihotzetan sartzen da aragoitarra bizpahiru kantu bete ondoren. Oso une bereziak izan ziren amaieran: *Aqueras montañas* –aragoieraz egin zuen Biarnoko pieza zahar hau–, *Aragón*, aipaturiko *Canto a la libertad*, eta amaierako *Me dicen que no quieres* tristea. Jendeak, zutik jarrita, gehiago eskatzen zuen, baina Labor-detak bazkaldu gabe zegoela eta afaldu behar zuela aitortu zuen. Ziur aski egia zen, nahiz eta orain inmunditateaz gozatu. Horrelakoa da motxila darabilen parlamentari bakarra: maitagarria.

GONZALO TEJADA MUSIKARI ETA KONPOSITOREA

«Kantatuak izan daitezkeen
piezak dira»

Gaur goizean estreinatuko dute Euskadiko Orkestra Sinfonikoaren egoitzan Gonzalo Tejada konpositorearen 'Fiesta de Luna' obra. Egberto Gismontiri eskainitako «konposizio liriko entzunerraza» dela dio egileak, eta modu abangoardistan osatu duela.

Ainhua Oiarzabal | DONOSTIA

EGUNKARIA

Eguarte hiru garren denboraldiari ekin diote gaur 11:00etan EOSen. Gonzalo Tejada, Mozart eta Schuberten piezak interpretatuko ditu Orkestrako musikari Waldemar Machmar, Helena Styrezula, Grzegorz Kawka eta Pascale Micahudek osaturiko laukoteak.

■ Emaizkiguzu *Fiesta de Luna* gaur estreinatu den obraren xehetasunak.

Hari laukotearentzako lana da, eta bi zati ditu: *Luna* eta *Fiesta*, hain justu, izenburuaren kontrako ordenan. Lehen pieza lirikoa da, melodikoa, eta biolontxelo eta biolina bakarrik ariko dira askotan; bigarrena, berriz, erritmokoagoa da. Biko eta hiruko denborak txandakatu egiten dira, eta batzuetan, bateratu.

■ Obrari *Dos canciones al estilo de E. Gismonti* azpiztitulua jarri diozu. Zergatik?

Egberto Gismonti Brasilgo musikagile oparoari omenaldia egin nahi diodalako. Gurean oso pertsonaia ezaguna ez izan arren, Europako jazz musikarientzat erreferente garrantzitsua da Gismonti. Kantautore gisa sartu zen musikaren munduan, gero jazz musika egiten hasi zen, musika brasildarrarekin lotura estua zuena. Eta azkenik, musika sinfonikoa ontzeari ekin zion. Bere piezetan Brasilgo azken ehun urteetako musika tradizioa biltzen du, oso erritmikoa, oso koloretua, harmonikoki oso berezia.

Aspalditik asko gustatzen zait musikaria. 1990ean, adibidez, Triptico jazz taldearekin Eusko Jaurlaritzaren sari bat jaso genuen Gismontiren musikan oinarritutako *Luna* jazz lanarekin.

■ Zure jazz konposizio baten moldaketa da oraingo *Luna*?

Noizik eta behin ongi etortzen da egin duzunari buruzko gogoeta egitea eta betitik gustatu zaizkizun autoreak berreskuratzea. Hala, jazzarako egin nuen konposizio hori hari laukote batek jotzeko kantua bihurtu dut.

■ Kantuak al dira, bada?

Kantatuak izan daitezkeen pie-

zak dira. Erraz ezagutzeko melodia dute. Modurik abangoardistanean konposatu dudala iruditzen zait.

■ Zein da modu abangoardista hori?

Abangordia konposatzen ez duena bazterturik dagoela dirudi. Eta egungo abangoardiaren aurka egitea da, niretzat, aban-

BI ZATI

«'Luna' zati lirikoa, melodikoa eta 'Fiesta' zati erritmikoagoa ditu obra honek»

EGBERTO GISMONTI

«Brasilgo musika legez, erritmikoa, koloretsua eta harmonikoki oso berezia da harena»

ABANGOARDIA

«Azkar pasatu diren lanak berriro hartzea da abangoardista izatea»

goardista izatea. Egia da elementu berriak erabili behar direla, gauza berri asko sortu baitira azkenaldian. Baina oso azkar pasatu diren gauzak berreskuratu egin behar direla deritzot. Lan horiek gehiago eman dezakete oraindik.

■ Gaur Donostian estreinatuko den obra honetaz gainera, zure beste lan bat estreinatuko da laster, ezta?

Bai, hala da. Datorren astean Bilbon flauta eta pianoarentzako *Divertimento* obra estreinatuko dute. Mario Clavelek estreinatuko duen obra horrek ez du *Fiesta de Luna*-ren antzik; intelektualagoa da, hitzaren adiera gutxiesgarrienean.

Egia esan, gogo onez hartzen da urteetan konposatzen jardun ostean zure obrak estreinatua izatea.

Lehen liburuko pasarteak Interneten ►► www.susa-literatura.com

LEHORREKO PATERAK

INAKI FRIERAK

SUSA